

I 2019ko uztaila I

[RIS3 Euskadi](#) ezartzen laguntzeko helburuarekin, Azaro Fundazioak programa bat diseinatu du Fabrikazio Aurreratua eskualdeko enpresei hurbildu ahal izateko. CHALLENGE 4.0 deituriko programak ETEen digitalizazioa bultzatu nahi du *startup* edota beste irtenbideen hornitzaile batzuen lankidetzaren bitartez.

Programa honek Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin, Bizkaia Orekan ekimenaren bidez. Bertan, Lea-Artibaik ez ezik, Durangaldeko eta Busturialdeko eskualdeak ere laguntzen dute.

Challenge 4.0 programari esker, enpresek digitalizazioari buruzko beraien egungo egoera ezagutu ahal izango dute, heldutasun digitala deritzona, eta digitalizazioaren inguruko aukerak ere identifikatuko dituzte. Hori guztia hiru saiotan lantzen da, gaian adituak diren agintarien laguntzarekin, horretarako metodologiak eta tresnak baitituzte. Adituek horiek, gainera, partaide diren enpresei aukera bati lehentasuna ematen eta aukera hori ezartzeko ibilbide-orri bat egiten lagunduko diete.

Ondoren, partaide diren enpresak programaren bigarren fasean sartuko lirateke. Fase honen xedea aukera edo erronka horiek lehenago aipatutako eskualdeko *startup* enpresei aurkeztea da, horiek irtenbideak proposatu ahal izateko. Enpresa izango da bere beharrei hobekien datorkien irtenbidea hautatuko duena, eta Azaro Fundazioan aukeratutako irtenbidea enpresei ezartzen laguntzeko eskuragarri dauden dirulaguntzen programak aztertzeko konpromisoa hartuko dute.

Programa honekin, beraz, *startup* enpresak ETE industrialetara hurbiltzea eta beraien zerbitzuak hobetzea ere ahalbidetu nahi da.





Ibermática

